

gutunzuria

Bilboko Letren Nazioarteko VIII. Jaialdia

Eros gogoan

apirila 16 > 25

FERNANDO ARRABAL
ITXARO BORDA
JAMES ELLROY
WENDY GUERRA

EDORTA JIMENEZ
JAVIER MARÍAS
ÁLVARO POMBO
TZVETAN TÓDOROV

MEDIATEKA
BBK

Az
Azkuna Zentroa

AlhóndigaBilbao

www.azkunazentroa.com



BABESLE NAGUSIA


bbk

KOLABORATZAILEAK



metro
bilbao

ALSA



KOMUNIKAZIO LANKIDEAK

EL CORREO



/ EROS GOGOAN

Az Azkuna Zentroak Gutun Zuria - Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdiaren zortzigarren edizioa egingo du apirilaren 16tik 25era bitartean. Idazketaren arloko pertsona ospetsuen eta entzuleen arteko harreman zuzena bultzatzen duen literatura-programa.

'Eros gogoan' izenburuaren pean, Javier Marías, Álvaro Pombo, Wendy Guerra, James Ellroy, Fernando Arrabal, Itxaro Borda, Edorta Jimenez eta Tzvetan Tóдоров idazleek entzuleekin partekatuko dituzte literaturan dagoen erotismoari buruz eta gogorazteko eta iradokitzeko kultura beren liburuetan agertzeko moduari buruz egin dituzten hausnarketak, eta, horretarako,

zehatz aztertuko dituzte bikotekideen artean dauden tirabirak, indar sortzaile eta suntsitzaile gisa helduko diote sexuari, eta agerian jarriko dituzte erotismoaren berezitasunak eta Erosen aurreko jarrean dauden desberdintasunak, desiraren tunel ilunenetaraino iritsi arte.

Literaturan dagoen erotismoa ez da literatura erotikoa edo pornografikoa. Desberdintasuna aldi berean agertzen da estetikan, gogora ekartzeko kultura baitago azpian eta ez deskribapenezkoa, eta genero batek edo besteak lantzen dituzten istorioen gertakizunetan.

Aurreko edizioetan bezala, saio bakoitzaren ondoren, 'Irakurlearen ordua'

izango da, bertaratuek egileekin hizketan aritzeko parada izan dezaten, giro lasaian, Bodega Urbanak aukera honetarako berariaz prestatutako ardoaz gozatuz.

Musika eta hitza

Gutun Zurian arteetatik lerratzen da hitza. Jaialdiaren inaugurazioa apirilaren 16an izango da, 19:30ean, ekitaldi honetarako berariaz sortutako 'Eroklipa' ikuskizunarekin. Hitza, irudia eta musika erabiltzen dituen erotismoari buruzko eszenaratze bat, Mikel Alonso, Itziar Lazkano, Miren Gaztañaga, Mikel Ibáñez, Cristina Sánchez Cuétara eta Silvia Gutiérrez Ortega artistek asmatua.

GUTUN ZURIA
Bilboko Letren Nazioarteko VIII. Jaialdia
Apirilaren 16tik 25era

Gainera, aurrean, saio bakoitza hasi aurretik, Udane Goikoetxea kazetariak poema erotiko bat irakurriko du euskaraz, eta INUN kantautoreak musika jarriko dio.

Programa osatzeko, 'Stockholmeko sindromea' ikuskizunean, Karra Elejalde, Beatriz Catalán eta Ana Arias aktoreak, Iván Ferreira eta Gari musikariak, eta Valérie Tasso sexologoa, besteak beste, eguneroko kontuez arituko dira hizketan, entzuleekin eragin-trukean. Musikari dagokionez, 'Ilargiaren Alde Erantzian, 2015' ikuskizunaren aurkezpena izango dugu, Pettik, Joxan Goikoetxeak eta Harkaitz Canok erotismoari buruz presatatu duten poesia eta musikako errezitala

SOLASEAN

JAVIER MARÍAS

Solasean...



Javier Marías (Madril, 1951) Espainiako egungo narratibako ahotsik berezietako bat da. Hizkuntzaren Errege Akademiako kidea da 2006. urtetik. Bere obrak 42 hizkuntzatan eta 54 herrialdetan eman dira argitara, eta zortzi miloi ale inguru saldu ditu. Oso sari garrantzitsuak lortu ditu, esate baterako, Ciudad de Barcelona Saria, Fastenrath Saria edo Iberoamerikako José Donoso Letretako Saria.

Idatzi dituen eleberrien artean, 3 liburukitan argitaratutako **Tu rostro mañana** nabarmenak dira: **Fiebre y lanza** (2002), **Baile y sueño** (2004) eta **Veneno y sombra y adiós** (2007) liburukiak. Azken eleberria, **Así empieza lo malo** (2014) izenekoa, istorio intimoa da, eta desira, herra eta barkamenaren bidegabekeria ditu hizpide.

M^a LUISA BLANCO-rekin

Gutun Zuria 2015 edizioko zuzendaria

OSTEGUNA, 16

19:30ean



Reina Sofía Arte Zentro Museo Nazionaleko edizioko zuzendaria. M^a Luisa Blanco kultura-arloko kazetaritzan aritu da azken 30 urteetan, eta El País egunkariaren 'Babelia' eta Diario ABCren 'ABC Cultural' kultura-gehigarrien zuzendaria eta Cambio 16 aldizkariaren zuzendariordea izan da. Siruelak argitara emandako **Conversaciones con Antonio Lobo Antunes** (2001) liburuaren egilea da.

«Javier Maríasen lana unibertso oso bat da. Fikziozko unibertso bat, eta, bertan, berariaz gurutzatzen dira literarioa eta benetakoa dena, irudikatua eta bizi izandakoa. Hizlari handia, dotorea eta ironikoa. Mariasek Gutun Zurian VIII. edizio honi izena ematen dion gaia landuko du, besteak beste, 'Erotismoa literaturan', alegia, arlo horretan ere maisuki aritu baita.»

FERNANDO ARRABAL

Solasean...



Juan Goytisolo idazlearen esanetan, «Arrabal ez balego... asmatu beharko genuke». Fernando Arrabal (Melilla, 1932) bere garaiko eztabaida-sortzailerik handienetako bat da.


Jakintza-arlo askotako sortzaile honek 'izuaren mugimendua' sortu zuen 1963an Jodorowsky eta Topor-ekin batera, eta André Bretonen talde surrealistako kidea izan zen. Zazpi film zuzendu ditu, eta dozena bat eleberri baino gehiago, hainbat saiakera-liburu, dozenaka poema-liburu, bost opera-libreto eta artista-liburu ugari eman ditu argitara.

RAMÓN BAREA-rekin

Antzezlea eta antzerkiko zuzendaria

OSTIRALA, 17

19:30ean



Ramón Barea (Bilbo, 1949) antzezlea, egilea, antzerkiko zuzendaria eta zinemazuzendaria da. Haurtzaroz, mezu-ataletaria eta Bilboko Plaza Barriko txakurtoreatzailea izan zen, eta, nerabezaroan, antzerkiko ikusle konpultsiboa eta aktore amateurra. 2013. urtean, Antzerkiko Sari Nazionala jaso zuen, antzerkiko gizon osoa izanda, bere ibilbide zabalean antzerkiko alderdi guztiak lantzeagatik.

«Arrabal ez da eroritako aingeru bat, ez galdutako haur bat. Azken batean, berak paradisu ofizialari ate zartakoa eman, eta debekatutako bidean aurrera egin zuen, bestela ezagutuko ez genituzkeen tokietara iritsi ahal izateko. Ubu aita izan zuen tutore, 'Fernando Arrabal' izenez ezagututako zulo beltz batean bizi da, eta, patafisika kuantikoaren arabera, nahasmenduen teoriaren barruan sartuta dago. Nik maite-maite dut.»

gutunzuria 2015

/ EROKLIPA

Osteguna, apirilak 16 19:30ean
Auditoriuma. -1. solairua

Aurten, 'Eroklipak' emango dio hasiera Gutun Zuriari. Jaialdirako bereziki asmatu den ikuskizun honek hitza, irudia eta musika erabiltzen ditu erotismoa azaltzeko.

Cristina Sánchez Cuétarak eta Silvia Gutiérrez Ortégak hainbat musika-pieza joko dituzte zuzenean, harparekin eta gitarrarekin, hurrenez hurren, Mikel Alonso argazkilararen 'Erotismo y gastronomía' bildumako irudiz lagunduta. Bestetik, Miren Gaztañagak eta Mikel Ibáñezek jaialdiko gaiarekin lotura duten poema batzuen irakurketa dramatizatua egingo dute.



/ MEDiateka BBK ATARIAN

Jaialdiko egunetan, Apirilaren 16tik 25era, Mediateka BBK-k gune bat zabalduko du Kulturen Atarian, **Az** Azkuna Zentrora etortzen diren bisitariak jaialdian parte-hartzen duten idazleen bibliografia eskuragarri izan dezaten.

Irakurketa-txoko honetan, Gutun Zuria jaialdiko gonbidatuen liburuak ikuskatu, eta eleberrietan erotismoari nola heldu dioten jakin ahal izango duzue.

Zatoz gune honetara, eta utzi Jaialdiari buruzko iruzkinak jendearen esku jarriko dugun Gutun Zuriaren liburuan.

SOLASEAN

APIRILAK 16 - APIRILAK 19

ÁLVARO POMBO

Solasean...

JUAN A. GONZÁLEZ IGLESIAS-ekin
Poeta eta margolaria

LARUNBATA, 18
18:30ean



Álvaro Pombo (Santander, 1939) Espainiako Errege Akademiako kidea da 2002. urtetik, eta Espainiako literatura garaikideko maisu eztaba daezinetako bat da. Sari garrantzitsuak eskuratu ditu, eta hauek nabarmentzen dira: Narratibako Sari Nazionala **Donde las mujeres** (1997) lanarekin, Kritikaren Sari Nazionala **El metro de platino iridiado** (1990) lanarekin, Planeta Saria **La fortuna de Matilda Turpin** (2006) eleberriarekin eta Nadal Saria **El temblor del héroe** (2012) lanarekin.

Bere azken eleberrian, **La transformación de Johanna Sansileri** (2014) izenekoan, argi azaltzen da pertsonaien eraldaketak eta metamorfosiak egilearengan sortzen duten kezka.



Juan Antonio González-Iglesias 1967an jaio zen Salamancan. Poeta, itzultzailea eta margolaria izateaz gain, latinezko irakaslea da Salamancako Unibertsitatean, eta Ovidio eta

Katuloren itzultzailea ere bai. 1993an argitaratu zuen lehen poema-liburua, **La hermosura del héroe** izenburupean, eta Vicente Núñez Saria jaso zuen harekin. **Eros es más** lanarekin, Loewe Fundazioaren Nazioarteko XIX. Poesia Saria eskuratu zuen (2006).

«Álvaro Pombo funtsezko idazlea da nire bizitzan eta nire poesian. Bere narratibaren unibertso oso poetikoa da eta oso aberatsa filosofikoki. Bi munduen alderik onena biltzen du, kultura tradizionalak eta narratibarik egungoenak duten alderik onena. Bere idazkeraren alde etikoa interesatzen zait bereziki, ongiaren alde egiten duen apustua, letra larriz nahiz xehez idatzita egon. Badago behin eta berriz errepikatzen duen esaldi bat: **Jainkoak munduan dituen eskuak gara gu. Askok interesatzen zait bere askatasuna, alde erotikoa ere bai.**»

JAMES ELLROY

Solasean...

JUSTO NAVARRO-rekin
Idazlea eta itzultzailea

IGANDEA, 19
19:30ean



James Ellroy (Los Angeles, 1948) genero beltzeko maisu ukaezina da, estilo lehor eta zorrotz, eta tonu ezkor eta ilun horrekin. Amaren hilketak haurtzarotik markatu zuen, auzia ez baitzen sekula argitu. Nerabezaroan eta gaztetan, kriminalitatean murgilduta egon ondoren, Ellroyk larrimina bideratzea lortu zuen, eta gizateriaren alde ilunaren berriemaile ausart bilakatu zen.

Arrakasta handia lortu du benetako kasu batean oinarrituta dagoen **La Dalia Negra** eta **L.A. Confidential** lanekin. Biak ala biak zinemaratu dira. Bere azken lana, **Perfidia**, 2014an eman zen argitara Espainian. Hollywoodeko aurpegi iluna deskribatzen du bertan, azalean baizik distira egiten ez duena.



Justo Navarro (Granada, 1953) Espainiako idazle eta itzultzaile bat da. **Los nadadores** (1985) eta **Un aviador prevé su muerte** poema-liburuak -1988an Kritikaren Saria

lortu zuen azken honekin-, eta **El doble del doble** (1988) eleberria argitaratu ditu, besteak beste. Gaur egun, El País egunkariko lankidea da, eta denbora osoa ematen dio literatura-ekoizpenari, batez ere poesiari eta narratibari.

«James Ellroy (Los Angeles, 1948), ezkutuko historia garaikidearen behatzailea, funtsezko egilea izan da literatura beltz berriaren sorrerari begira, zinemara eta bideo-jokoetara ere eraman baitira bere lanak. Errudun diren norbakoak edo kolektiboak identifikatzeko prozesua baino gehiago, Ellroyrentzat polizia-ikerketa galdutako denbora biltzea eta iragan hurbila argizatzea da. **Los Angeles Quartet** eta **Underword USA Trilogy** bezalako lanetan, ikuskitzen eta informazioaren industrian krimenak betetzen duen zeregin gorena erakutsi zuen.»

gutunzuria 2015

WENDY GUERRA

Solasean...

JASONE OSORO-rekin
KazetariaOSTEGUNA, 23
19:30ean

Wendy Guerra (La Habana, 1970). Gabriel García Márquezen ikaslea izan zen, San Antonio de los Bañosko Nazioarteko Zinema Eskolan eman zuen **Cómo contar un cuento** gidoi-tailerrean. Bere lan narratiboa 13 hizkuntzataraz itzulita dago, baina bere herrialdean ez dago argitaratuta. 2010ean, Frantziako Errepublikako 'Chevalier de l'Ordre des Arts et des Lettres' izendatu zuten.

Bere lehen eleberririk, **Todos se van** (2006) izenekoak, Bruguera Saria jaso zuen 2006an. 2008an, **Nunca fui primera dama** argitaratu zuen, eta 2010ean **Posar desnuda en La Habana**. Bere azken lanak, **Negra** (2013) eleberririk, Kubako lehen andre heroi beltza den Nirvana del Risco du protagonista nagusizat, eta arrazakeria eta mina ditu hizpide. Poesia-egile gisa ere nabarmendu da, **Platea a oscuras** (1987), **Cabeza rapada** (1996) eta **Ropa interior** (2008) bezalako poema-liburuak eman baititu argitara.



Jasone Osoro Informazio Zientzietan lizentziaduna da, eta kazetaritzaren arloan egin du bere lan-ibilbidea. Gaur egun, ohiko lankidea da Diario Vasco egunkarian. 1998an argitaratu zuen lehen eleberririk, **Tentazioak**, eta, harrezkero, hainbat antologiatan hartu du parte, esate baterako, **Euskal idazleen ipuin erotikoak** izenekoan (1998). **Bi marra arrosa** (2009) da idatzi duen azken eleberririk. Euskal Idazleen Elkarte burua da 2014. urtetik hona.

«Zer dakar Kuban jaiotzeak? Zer dakar Kuban emakumea izateak? Zer dakar Kuban emakumea eta beltza izateak? Nola egin aurre bizitzari denek alde egiten dutenean? Nortasuna, lurra, erbeste, sineskeriak, beldurrak, askatasuna, maitasuna... Horra hori Wendy Guerrak bere literaturaren bidez nabarmentzen dituen gaiak.»

ITXARO BORDA ETA EDORTA JIMENEZ

Solasean...

IÑAKI MENDIZABAL-rekin
KazetariaOSTIRALA, 24
19:00ean

Itxaro Bordak (Baiona, 1959) Paueko Unibertsitatean lortu zuen lizentzia, eta Maiatz literatura-aldizkariko zuzendaria izan zen 1980ko hamarkadan. Ohiko lankidea da euskal egunkarietan, eta Ipar Euskal Herrian dauden euskararen aldeko mugimendu sozialetan.

Bizitza nola badoo lehen poema-liburuan (1984) berriz ez idazteko desira agertu zuen. Hala ere, gozamenaren ematen jarraitu du **Basilika** (1984), **%100 basque** (Euskadi Saria 2012) eta **Urtemuga lehorren kronika** (1989) lanekin eta **Bestaldean** poema-liburuarekin (1991). **Zure hatzaren ez galtzeko** (2014) poema-liburua da egin duen azken lana, eta bizitzaz eta estetikaz duen esperientzia bildu du bertan.

2014an, Euskal Herriko hainbat agertokitara ibili da, L'Orchestre Maigne konpainiarekin, **Gu(haur) Arrotz(ak) / A n(o)us mêmes étrange(r)s** musika eta literaturako ikuskizuna aurkezten.



Iñaki Mendizabal kazetaria Noticias Taldeko 'Ortzadar' gehigarriko arduraduna da. Hiru liburu idatzi ditu euskal piratei buruz: **Euskal Piratak** eta **Baleazaleak eta kortsarioak** lan didaktikoak eta **Pellot eta Enperadorearen bahiketa** eleberririk.

«Egitan Bernardette (familikoentzat eta ingurukoentzat baino ez), Itxaro Bordaren narratibak eta poesiak indar berezkoa du, sentikortasun miresgarria. Intimitatea eta gizartearekiko konpromisoa uztartu ditu bere lanik gehienetan. Honela, betidanik idatzi izan du lesbiana izateaz, batzuetan metaforikoki, beste tsuetan gordin-gordin. Baionako idazleak euskararekin, literaturarekin eta jendartearekin duen loturaz hitz egingo du Gutun Zurian.»

«Idazlea, poeta eta saiogile aparta, Edorta Jimenez da gaur egun euskarazko erotismoa lantzen duen bilduma bakarraren arduraduna, hain zuzen, Txalaparta argitaletxeko Literatura sailarena. Horrez gain, bere obran ere leku nabarmena izan du erotismoaren gaiak, bai narratibetan (**Stock 13**), bai poesian (**Haragizko amoreak**). Gutun Zurian horretaz guztiaz berba egingo du, eta, bide batez, euskal literaturan erotikotasunak eta lizunkeriak izan duten lekua aztertuko du.»



Edorta Jimenez (Mundaka, 1953) maisua eta itsaslaria da lanbidez. Literatura-sorkuntzako hainbat esparrutan aritu da (fikzioa, poesia, kazetaritza, telebistako gidoiak...), eta literatura eta, oro har, kultura sustatzeko jardueretan ere bai.

Ekoi zen ugarria du, batzuetan Omar Nabarro izengoitipean aterata, eta bizkaiera kultuaren erabilera eta egindako dokumentazio-lan sakona ditu bereizgarri. Lan hauek nabarmendu behar ditugu: **Itxastxorien bindikapena** lehen poema liburu (1985), **Piztien itsasoa** thriller historikoko trilogia (1999-2007), Gerra Zibilari buruzko idazkiak, hau da, **Azken fusila** (1993) eta **Hemingway eta euskaldunak zerbitzu sekretuetan** (2003), eta bere bizitzari buruzko lanak, berak 'burufikzioa' edo 'norberari buruzko fikzioa' deitutakoa. **Stock 13** (2009) lana dago ziklo horren barruan: egileak bere burua biluzi eta barne-barneko istorioak kontatzen ditu bertan.



TZVETAN TÓDOROV

Solasean...

IÑAKI ESTEBAN-ekin
Kazetaria

LARUNBATA, 25
19:30ean



Tzvetan Todorov (Sofia, 1939) hizkuntzalari, filosofoa, historialaria, eta literaturako kritikaria eta teorialaria da. 1963tik Parisen bizi izan da, eta, bertan, estrukturalisten zirkuluko ordezkari gailenetako bat izan da, Roland Barthesekin batera. Izan ere, gure garaiko intelektualik handienetako bat da. Eskolak eman ditu École Pratique des Hautes Études-en eta Yaleko Unibertsitatean, eta hainbat unibertsitatean entzun dituzte bere irakaspenezko hitzaldiak, adibidez, New York, Columbia, Harvard eta Kaliforniakoetan. 2008an Gizarte Zientzietako Príncipe de Asturias Saria jaso zuen.

Literatura eta gizarte-zientzietan buruzko lan ugari egin ditu, besteak beste, **Teoría de los géneros literarios** (1966), **Frágil felicidad** (1985), **La vida en común** (1995) eta **Los aventureros del absoluto** (2005).



Iñaki Esteban **El efecto Guggenheim** eta **Libertad y sentido en las sociedades democráticas** liburuen egilea da; azken liburu horrekin, Miguel de Unamuno

Saiakera Saria eskuratu zuen. Kazetaritzako irakaslea da, El Correo egunkarian lan egiten du, eta kulturar-erloko hainbat argitalpenetan eta literaturari buruzko irratsaio batzuetan aritzen da lankide gisa. 2002. urtean, Atlántida Saria jaso zuen, Kataluniako Argitaratzaileen Gremioak urteko artikulugilerik onenari ematen dion saria.

«**Pertsona bakoitza hizkuntzaren, historiaren, kulturaren eta bera eratu eta aldatu duten gertaeren eta ideien emaitza konplexua da. Tzvetan Todorovek osagai horiek ulertu nahian eman du bere bizitza intelektuala. Hala fantastikoa denaren literatura-adierazpena, nola Vermeer bezalako margolariek eguneroko bizitza birsortzeko izan duten begirunea. Todorovek gure konplexutasunak sortzen dituen ilunaren eta argiaren arteko kontrastean bilatu du inspirazioa.**»

EGITARAUA

APIRILA

gutunzuria 2015

OSTEGUNA 16

19:30 Inagurazioa ①
Eroklipa Ikuskizuna
Solasean
Javier Mariás M^a Luisa Blancorekin
21:30 Irakurlearen ordua ②
Javier Mariasekin

OSTIRALA 17

19:30 Solasean ①
Fernando Arrabal Ramón Barearekin
21:00 Irakurlearen ordua ②
Fernando Arrabalekin

LARUNBATA 18

18:30 Solasean ①
Álvaro Pombo Juan Antonio González Igleziasekin
20:00 Irakurlearen ordua ②
Álvaro Pomborekin
21:00 Ikuskizuna ①
'Stockholmeko Sindromea'

IGANDEA 19

19:30 Solasean ①
James Ellroy Justo Navarrokekin
21:00 Irakurlearen ordua ②
James Ellroyekin

OSTEGUNA 23

19:30 Solasean ①
Wendy Guerra Jasone Osororekin
21:00 Irakurlearen ordua ②
Wendy Guerrarekin

OSTIRALA 24

19:00 Solasean ①
Itxaro Borda eta Edorta Jimenez Iñaki Mendizabalekin
20:30 Irakurlearen ordua ②
Itxaro Borda eta Edorta Jimenezekin
21:00 Poesia eta musikako ①
errezitaldia
'Ilargiaren alde erantzian, 2015'
Harkaitz Cano / Petti / Joxan Goikoetxea

LARUNBATA 25

19:30 Solasean ①
Tzvetan Todorov Iñaki Estebanekin
21:00 Irakurlearen ordua ②
Tzvetan Todorovekin

- ① Auditoriuma. -1 solairua
3€ / 2€¹
- ② Erakusketa Aretoko Ataurrea. -2 solairua.
Hitzaldira doazen lagunentzat bakarrik
- 📖 Liburuaren Nazioarteko Eguna

Saio bakoitza hasi aurretik, Udane Goikoetxea kazetariak poema erotiko bat irakurriko du euskaraz, eta INUN kantautoreak musika jarriko dio.

Adaketak egon daitezke ordutegietan.



Sarrerak salgai Infopuntuan (Informazio Gunea) eta www.azkunazentroa.com. Hitzaldi guztiek aldibereko itzulpena izango dute.

Ezin baduzu etorri, jarrai gaitzazu zuzenean livestream bidez. Auditoriuma beteta badago, solasaldiak -2 solairuko Bastida Aretoran jarraitu ahal izango dituzu (plaza-kopurua bete arte). 2€ / 1€¹



/ IRAKURLEAREN ORDUA

Solasaldi bakoitza amaitu ondoren, Gutun Zurian parte hartzen duten idazleek hizketaldi lasai eta hurbilagoa egiten dute hitzaldian izandako entzuleekin.

Bilera hori Erakusketa Aretoko atar-tean izaten da, hor oso giro egokia

sortzen baita egileen obrari buruzko iritziak trukatzeko, solasaldian azaldu-tako zalantzak galdetzeko edota li-buru batzuetako sinadura eskatzeko.

Bodega Urbanak ardo berezi bat sor-tzen du urtero ekitaldi honetarako. Oraingoan ekarriko diguten ardo beltzak kolore more bizia eta lore-buketak ditu, eta Mediterraneo aldeko

bi mahats-mota erabili dira bera egiteko, syrah eta garnaxa izenekoak.

IKUSKIZUNA

STOCKHOLMEKO SINDROMEAK



Apirilak 18, larunbata 21:00
Auditoriuma. -1 solairua
3€/ **2€**

ESTREINALDIA

Kultura-arloko pertsona ezagun batzuk hizketan arituko dira eguneroko kontuez, entzuleekin eragin-trukean. Ez da antzerkia, ez talk show bat, ez kontzertu edo dantza bat, ez hitzaldi bat, ez bide ibilia, eta, hala ere, badu denetik pixka bat. Kontua da ikuspegia, norekin elkartzen zaren gau-emanaldi honetarako, denbora eta gogoak izatea, ospatzea...

Hauek izango ditugu, besteak beste, bat-bateko berbena-mahai honetan: Karra Elejalde, Beatriz Catalán eta Ana Arias, aktoreak; Gari eta Ivan Ferreiro, musikariak; eta Valérie Tasso, sexologoa.

Apirilaren 18an, Bodega Urbanan izango den literatura-bileran, 'Stockholmeko

sindromea' ikuskizuneko kideak berrikeretan eta dastaketan arituko dira Gutun Zuria jaialdiko arduradunekin.

Ana Arias zeremonia maistra gisa

Interpretazio-ikasketak egin ondoren, fikzioaren –hainbat film laburrekin– eta antzerkiaren bidean abiatu zen. Dena dela, orain dela hamaika urtetik hona 'Cuéntame' telesailan antzezten duen Paquitaren paperak eman dio ospea.

Karra Elejalde

Aktorea, film-zuzendaria eta gidoilaria. Lur orotan ederki moldatzen da ikuskizunen esparruan, eta ondo merezitako bi Goya sari irabazi ditu.

Ivan Ferreiro

Galiziako musikari hau Los Piratas taldeko burua eta musikagile nagusia izan zen 13 urtez. 2003. urtearen amaieran bakarka jotzen hasi zen, eta gaur egun ere arrakasta handiak izaten ditu.

Gari

Hogeita hamar urte baino gehiago eman ditu musikaren arloan: 80ko hamarkadan Hertzainak taldean, eta harrezkero bakarka, lan bikainez beteriko zazpi disko egin baititu dagoeneko.

Valérie Tasso

Idazle, sexologo, hizlari eta ikertzaile frantses hau Bartzelona bizi da gaur egun. 'Diario de una ninfómana' (2003) beste-seller-arekin lortu zuen sona (2003), zalaparta handia sortu baitzuen, hala estatuan, nola atzerrian. Libertarioa izan nahi duen libertinotzat du bere burua.

Beatriz Catalán

Telebistako antzezle honek 'Desesperado Club Social' gazte-magazinean hasi zuen ibilbidea, eta hainbat telesailetan egin du lan: 'Arrayán', 'Hermanos y detectives', 'La vida de Rita'... Gaur egun, telebistan aritzeaz gain, GILDA rock taldean jotzen du.

MUSIKA

POESIA ETA MUSIKAKO ERREZITALDIA

ILARGIAREN ALDE ERANTZIAN, 2015



Apirilak 24, ostirala 21:00
Auditoriuma. -1 solairua
3€/ **2€**

ESTREINALDIA

Erotismoak iradokitzailetik daukana aintzakotzat hartuta, hitzak, kantuak eta poemak ere, gauzak erakutsi baino, haiek ezkutuan mantentzeko erabili izan dira sarri. Metafora eta sinboloetatik abiatuz, euskal tradiziozko kantuak, abesti propioak nahiz Nick Cave edo Lou Reed bezalako egileen bertsioak kateatzen ditu amorez eta umorez sortutako emanaldi honek. Sotilki abiatu eta gauak aurrera egin ahala gordinagotzen doan festa intimo bat.

Ahotsa, gitarrak: Petti

Eskusoinua, teklatuak: Joxan Goikoetxea

Errezitatzailea: Harkaitz Cano

TOPAKETAK

GUTUN ZURIA HIRIAN

Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia ez da soilik **Az** Azkuna Zentroan egingo. Jaialdiko egunetan, hiri eta ingurune osoa blaitzen dira literaturako espiritu horretaz.

Aurten, Gutun Zuria metroz ibiliko da, jaialdiaren irudia jasoko duten

informazio-oholen bidez. Bizkaiko liburu-dendek dena ematen dute ekitaldia hasten denean, eta, beraz, informazio osoa eskaintzen dute, programan jasotako jardueraz eta edizioan parte hartzen duten egileen bibliografiaz.

Az Azkuna Zentrotik kanpo ere literatura-bilerak izango ditugu. Edorta Jimenezek 'Baleen barbaroa' liburuari buruzko hitzaldia egingo du Basauriko espetxean, apirilaren 22an.

Egun berean, Wendy Guerra solasean arituko da Bilboko Miguel de

Unamuno Bigarren Hezkuntzako Institutuko ikasleekin, erotismoa eta literatura hizpide hartuta.